


# Jose Luis de la Mataren irria

Irri egiten genuen, noski.  
Irri algara batzuetan, goia jo arte.  
Nire oroimenean arakatzuz oroipen batzuk  
burura etortzen zaizkit eta horietako bat  
edo bi edo... Zure gaztaroan  
metatutako istorioak, abenturak,  
bihurrikeriak eta demasak. Horiek  
nola kontatzen zenituen, zein indarra  
eta bizi poza transmititzen zenituen,  
entzuten ari zena, bera ere, hori bizitzen  
arituko balitz bezala sentitu arte. Nola  
behartzen zenuen ahotsa, tinbre berezia  
sortuz... Kutsakorra zen.  
Zu, istorioak kontatzen, disfrutatzen  
ikusten zintudan eta ni, istorio horiek  
entzutean, pozik eta animoso sentitzen  
nintzen. Eta sentitzen naiz.  
Handiak ziren/dira une horiek, egundokoak!!  
Bai, jauna!!



Iñaki Ibargarai